

# HAU KOMERIA

Dirua urtzen zaigu zerbait erostera edo hartzera norabaitera sartzen garen bezain agudo. Baloirik gabe geratu da dirua. Ezin eskuratutik ibiltzen gara behintzat egunero behar ditugun gauzak.

Neurriz gainekza eginik dabilta erosi behar ditugun gauzen prezioak. Ikaragarriak izan dira urtearen aurreneko sei hilabeteak. Okerragoa izango omen da urtearen beste erdia.

Leporaino iritxi zaigu prezioen olatua. Ur txarra, neski, igeri ikasteko. Zer ikusteko ote gaude?

Buiturik eta puzturik dago ekonomia. Lehertzeko zorian haizeturik dagoen beharen ijara bezala zulatatu beharrean aurkitzen da. Baina nola? Aurten ez omen da ehuneko hogeitain gehiago puztuko. Ez izan, ordea, aurtengo gaitza bakarrik. Haundi itxurak kendu behar zaizkio ekonomiari. Giharre hutsean utzi behar da gizen ustelak kendurik. Eztanda egiteko arriskua du gehiegi puzturik dagoenak.

Bestela beti bezala ahulena ez zutiko du eta oraindik. Langileek eta nekazariek jasan beharko dute zamarik astunena. Ikus, bestela, batzuei eta besteiei gertatzen zaiena. Lau aldiz jarri dira bi urteotan autoen salneurriak galgan. Ezeko berobilak eman zaie esnezeleei. Ez dute esnearen salneurriak jasotzerik izan.

Ikustekoa da langileen larria ere. Ezin dira iritxi. Lansariak lehenean diraute, gauza guztiak, berriz, egunetik egunera ari dira garestitzen. Baina gauzen garestitzeaz ez gaitzeko zornak sortzen duen haundiduraz bezala mintzo.

Hazten ari omen gara. Oraindik gehiago hazi behar omen dugu. Baina aurrera-dei horretan beste honako hau ikutatzen da: industriatzaia ekin zion bideari jarraitu behar zaioa, soldata merkeekin, ordu-sartze askorekin, astolan haundiarekin. Gauzak ez daitezke konpondu diru gutxiagoz lan gehiago egin arazik.

Ez dezagun ahanzt, gainera, geure egoera. Gure artean ez dute langileek lege notatsunik. Langileek egiten duten bidezko eskari bat, lantokitik bidaltzeko arrazoi eta legezarentzat zigorgarri bilaka daiteke. Beren eskubideak zaintzeko eta eskuratzeko biderik gabe gertatzen dira askotan.

Arrisku gehiagi dauka langileek egoera honetan. Kalaen geratu daiteke ustetrik gutxienean, nagusi eta langile arteko tirabira batean. Beste ezbehar asko etxera dezake. Baina honela konponbideak irekitzeko ordez itxi basterik ez ditugu egiten.

Ez da aski haziz jarraitu nahi izatea. Nola hazi behar dugu? Hemen dago kaxoa. Beste herri aurreratuagoek egin nahi ez duten lan merkea eginaz jarraitu behar al dugu? Hoiek nahi ez dutena guk geuk egin behar al dugu holentzat? Horri aukeratzaren badugu horma sendoak eta egitura gogorrak beharko dira langileriari eusteko. Gero eta argiago eta-biziago beren eskubideen alde borrokatzen diren langileak zapalduz egin beharko da.

Ez al da beste biderik? Ez al da lan merkeari eta ordu-sartzeari uko egiteko garaia heldu? Ez al da zenbait bide lasatzeko ordua iritxi? Ez al da estrata zaharretik bide zabalera ateratzeko denbora etorri?

# McLUHAN PARISEN

## Liburuarenak egin du

Lau M handietarik bat —Marx, Mao, Marcuse, McLuhan— Parisen izan da berrikitan. Honen idazlan bat, *Du cliché à l'archétype* alegia, frantsesez argitaratu dela-ta, aurkezpena eginaz hitzaldi bat egitera ekarri dute Ameriketarik.

1911an Kanadan jaioa, irakasle eta idazlan askoren egilea da Marshall McLuhan. Horietarik bost itzuli dira Frantziara, eta liburudendetan suma dai-tekenez ongi saltzen dira. Halere, ingles hizkuntzaren munduan izan duen arrakastarik ez du gure artean izan. Agian, Descartesen jarraitzaile zintzoegiak garelakoa *Mass media* direlako munduko soziologorik handiena da McLuhan, zalantzarik gabe. Soziologia-mota hori enpirismo eta inkesta giesietatik atereaz teoria oso eta biribil baten gailurra-tera eramane duena, bera izan da.

Ezguna bezain eztabaidatua da McLuhan. Honentzat soziologo zorrotza da, harentzat paradoxa-sortzaile hutsa, zeinentzat piztia bitxi bat (Ameriketara sortzen den horietako bat), halakoarentzat igarile bat. Maitatu ala gorrotatu, haren ideiak hortaz okupatzen den orok ezagutu behar ditu nahitaez. Erreferentzia bat da. Ulerterreza ez beste gaitzarentzako gutzia da McLuhan. Honen liburuek ez dute gure ordenurik, gure logikarik. Apropos egi-na. Haren liburuetan murgiltzen dena, edo egilea edo bera galdua ote dabilen susmoarekin aterta-tzen da. «Kultura mosaikoan» gaude bai, eta era hortantxe hartu eta erabili nahi ditu problemak oro. Arazo baten adarrak, datozen moduan idaz-ten ditu, liburuaren batasunari eta osotasunari jaramon handirik egin gabe. Irakurlearentzat neke gutzia. Hori barne zer den baliozko eta zer ez jakiteko, urre-biltzailearen pazientzia eta kemena behar da.

Mintzatzen denean, berdin, da: umoretsu, serio, hitz-jokalari, filosofo... Arnas-hartzea bezin erraz zaio inbentatzea, zioen berari buruz kritiko batek, Parisen egon delarik. Pariseko egotaldian bere betiko ideiak birresan ditu. Esan beharra dago, ideiatan —edo-ta intuitzioan— aberatsa dela McLuhan. Barreiatua eta ixuria ematen du, baina ideia guzien ardatza mass media horietaz duen iritziak osatzen du.

Elektronika garaian, «Marconi Galaxian» bizi garelako gaur, dio McLuhanek. «Gutemberg Galaxia» joana dela, liburuarenak egin duela. Irratia, zinema, telebista, etc., dira gaur nagusi.

Eta aldakuntza hau ez da axalekoa, McLuhanen ustetan. Pentsaera eta biziera osoki aldatzen dira horrela. Uste eta esan ohi dena baino askozaz ere garrantzikoagoa da aldaketa, bada. Zergatik? Labur esanik, inportanteena ez delako (nola esan?) zer esaten den, baizik esateko zein tresna erabiltzen den. Esan nahi bait da, ez dela berdin mezu bat, irratitik, telebistatik, egunkaririk ematea. McLuhanek azpimarratu nahi duena, kontentua... aileak kontenutua (azalak mamia) baldintzatzen duela adieraziz, zera da, alegia, «medium» bakoitzaren eragina eta ondorioa arras desberdina dela. Hortik bere aforismo ezaguna: «The medium is the message», hots, komunikabidea bera, informabidea bera da mezua.

Komunikabideen eboluzioaren arabera azter daitekeela munduaren historia, pentsatzen du McLuhanek. Horrela bada, hiru garaia nagusi bereizten ditu, erabili ohi den informazio-gailua kontutan harturik: leinu-garaia, garai mekanikoa eta —hirugarren— herrixka osoaren (?) («village globale») garaia.

Leinu-garaian hitza da komunikabide. Gizona-

ren zentzu guziek parte hartzen dute, eta errealitatearekiko harremana direktoa, zuzena, eta sin-tetikoa da. Herriak eta populak moldatzen dute politikazko eta geografiazko antolamendua.

Mekanikazko garaia, idatziarena eta inprime-riarena da. Zentzuaren bereizkuntza sortzen da, begiaren alde. Lana zatikatu eta gizabanakoa espezializatu egiten dira horrexegatik. Lekuneak eta denborak neurritzen eta zatikatzen dute erre-alitatea. Erresuma eta indibidualismoa agertzen dira. Inprimeriarekin, komunikazioaren mekaniz-tzeak produzioarena iragarten du.

Gaurren, «entzun-ikus gailuak» (moyens audio-visuels) eta automatizazioak haustura sortzen dute, dena itzulipurdikatuz. Aterza lehengora goaz. Mundua herrixka zabal eta handi bat bilakatzen da. Abioiak, telefonoak, irratiak, telebis-tak tartea eta denbora suntsitu eta indargabetu egiten dituzte. Munduko eta nazioetako zentrali-zatzea ahuldu egingo da, eta gizabanakoak oro bere bizitzako eginkizunetan eskuhartzea geroz eta premiazoago bihurtuko da. Esan bezala, er-digune eta periferiaren arteko diferentziak putz dira aurrerantzean. Komunikazioa deneri artean eta zuzenki egina izanen da. Eskola, hormarik ga-bekoa. Eta oraingo kultura hierarkikoaren ordez hierarkiarik gabeko kultura izanen dugu, hots «kul-tura mosaikoa». «Informazio osoko inguruan bizi gara», dio McLuhanek. Eta oraindik: *hiru urteko haur batek Mathusalem-ek bere bizitzaren azke-nean baino gehiago daki gaur».*

Horra bada, bere filosofien apurrak, trakets eta trabes emanak. Aipatutakoaren arabera, aise uler daiteke liburuaz McLuhanek esango duena, eta askok barkatzen ez diona. Sartaldea, dio McLuhanek, alfabetak eta idatziak egina da. Gure kulturaren oinarri, eusle eta zentzu-emaile hitz idatzia eta inprimatua da. Eta hain zuzen gure kulturaren akatsak oro hortixek datoz. Inprime-ria da bihotzaren eta izpirituaren arteko haustu-raren, hizkuntzaren harri-bihurtzearen, eta jakin-bide bakarra-begia izatearen errudun. Gure kul-tura arrazoinzalea, hierarkikoa, kartesianoa... de-la? Badakigu aurrerantzean zer egin. Zeren-eta, McLuhanek dioenez, elektronikari esker garai ho-ri azkenetan dago. Liburua eta egunkaria, konde-naturik daude.

Hori da McLuhan. Hori eta gehiago. Zer esan? Modu askotara erabil liteke berak dioena. Eia on-dorio onargaitzak atara daitezke, han eta hemen. Esaterako: Tresna berri horiei esker mundua he-rrixka bilakaturik diferentziak oro desagertzen di-rela? Apolitizismoa horixe besterik ez dute nahi mundu osoko eskuindarrek. Tresna bera dela in-portantea eta ez horrenbeste mezua? Sistema fin-katzeko ez dute besterik nahi tresna horien jabe-ek.

Paradoxaz bete da McLuhan. Liburuarenak egin duela, dio. Baina Gutemberg ez dago hilkik, ez horixe. Sekula baino liburu gehiago argitara-tzen da munduan. Eta McLuhanek berak liburu-a hilda dagoela esateko zer egiten du? Liburuak idatzi.

Joan Mari Torrealdai



## ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:  
MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Ara-goiko Kaputxinoek argitara-tua. (Kale Nagusia, 50-1.º Bur-lada -IRUIÑEA).  
Donostia: Okendo, 22  
Tel. 41 95 88

**ARPIDE SARIA:**  
Barruan 350 pezeta  
Korreo batasune-tako herrietan 400 pezeta  
Atzerrietako bes-te herrietan 420 pezeta  
Airez Aldez aurre-tik galdetu  
Salmenta (ale bakoitza) 8 pezeta  
Moldiztegia eta Idazkola.  
«Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1. IRUIÑEA  
D. L. NA. 80-1963

## EGUN EGUNGOA

Hauzokoak ere lanean.

Aragoin barrena ibili naiz. Haize berriak nonnahi sumatzen dira. Lehen entzuna nuen eta orain lehenbizikoz irakurri: «Andalán» hamabostekari Aragoi-zale bizia. Lantxo bat bertako dialektok idatzirik da. Besteak beste, zera dio: «...os nuestros fins son... evitá qu'a fabla muera, fé un aragonés literario común...» («Horra gure helburuak: geure mintzaira hiltzetik begiratzea, literatur-aragolera orokor bat egi-ta...»).

Hauzokoak, bada, gu beze-la ari dira batasunaz grinaturik. Ikasi beharko ote du-gu inoz haiegandik usteak nola bat, eztabaidak nola gandi?

DANIEL IBARGOITI